

## Xedapen Orokorrak

### JUSTIZI, EKONOMI, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

#### Zk-809

AGINDUA, 1997ko otsailaren 4koa, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena, ikerketaren, dokumentazioaren eta informazioaren alorretan Droga Gaietarako Idazkaritzari esleitutako funtzioak zehaztu eta Droga-menpekotasunen Euskal Behatokia sortzeko dena.

Drogamenpekoen alorreko Aurre-Hartze, Laguntza eta Birgizarteratzeari buruz azaroaren 11n emandako 15/1988 Legearen 40.1 atalean, Ikerketa eta Agiriak epigrafean, Eusko Jaurlaritzak alor bi horietan sustatuko dituen jarduerak zehazten dira. Hauek dira zehatz-mehatz: droga-menpekotasunen eragina, sustraitze-maila eta arazoak ezagutzeko, aldiro-aldiro inkestak eta azterketa epidemiologiko, ekonomiko zein sozialak egitea; droga-menpekotasunak dakartzan arazo sozial, sanitario eta ekonomikoei buruzko azterketa, ikerketa eta prestakuntza lerroak finkatzea; prebentzio eta laguntza programen ebaluazioa egitea eta arlo horretako baliabide dokumentalak hobetzea, erakunde publiko zein pribatuek eta agiri horiek aztertu eta ikertu nahi dituzten gutziek eskura izan ditzaten.

Bestalde, aipatutako 15/1988 Legearen 40.2 atalak dioenez, zehaztutako helburuak lortzen laguntzeko, Eusko Jaurlaritzak egoki ikusten dituen lankidetzahitzarmenak egin ahal izango ditu, eta lehentasuna eman dio Euskal Herriko Unibertsitateari.

Otsailaren 11n emandako 35/1986 Dekretuaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak Lehendakariaren Bulegoa sortu zuen, droga-menpekotasunen aurka jarduteko. Bulego horren barruan Droga-menpekotasunen Sailen arteko Batzordea dago, lehendakariaren aholkulariaren menpe zuzen-zuzenean.

Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzeko urtarrilaren 3an eman zen 1/1995 Dekretuaren 8.1.o) atalean xedatutakoaren ondorioz, gaur egun Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari dagokio droga-menpekotasunen aurkako egintzen arloa. Bestalde, sail horren egitura organiko eta egitekoena finkatzeko otsailaren 7an emandako 141/1995 Dekretuaren 22. atalaren arabera, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailordetzaren menpeko Droga Gaietarako Idazkaritzari dagokio, besteak beste, drogamenpekotasunen arloko ikerketa-, azterketa- eta dokumentazio-politikari buruzko jarraibideak proposatzea eta gai horretaz ematen diren arauen aurreproiektuei edo proiektuei buruzko derrigorrezko irizpena ematea. Bere lana eraginkorra izan dadin Droga Gaietarako

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, ECONOMÍA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

#### Nº-809

ORDEN de 4 de febrero de 1997, del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, por la que se determinan las funciones de Investigación, Documentación e Información atribuidas a la Secretaría de Drogodependencias y se crea el Observatorio Vasco de Drogodependencias.

El artículo 40.1 de la Ley 15/1988, de 11 de noviembre, sobre Prevención, Asistencia y Reinserción en materia de Drogodependencias, bajo el epígrafe investigación y documentación, determina el conjunto de actuaciones que en estas dos áreas promoverá el Gobierno Vasco, concretamente la realización de encuestas periódicas y estudios epidemiológicos, económicos y sociales para conocer la incidencia, prevalencia y problemática de las drogodependencias; líneas de investigación estudio y formación en relación con la problemática social, sanitaria y económica relativa a las drogodependencias; la evaluación de los programas de prevención y asistencia así como la mejora de los recursos documentales en esta materia, garantizando el acceso a los mismos a todos los organismos públicos y privados y a cuantos estén interesados en su estudio e investigación.

Así mismo, sigue diciendo el artículo 40.2 de la citada Ley 15/1988, que para coadyuvar en los objetivos marcados, el Gobierno Vasco podrá concertar los oportunos Convenios de Colaboración, a los cuales tendrá acceso preferente la Universidad del País Vasco.

Cabe reseñar que mediante el Decreto 35/1986, de 11 de febrero, el Gobierno Vasco procedió a la creación de la Oficina del Lehendakari para la lucha contra las drogodependencias, incardinándose en dicha Oficina, y en dependencia directa del Asesor del Lehendakari, la Comisión Interdepartamental de acción contra las drogodependencias.

Actualmente, y en virtud de lo dispuesto en el artículo 8.1.o) del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, al Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social le corresponde el área de actuación de las drogodependencias, estableciéndose en el artículo 22 del Decreto 141/1995, de 7 de febrero, por el que se aprueba su estructura orgánica y funcional, que a la Secretaría de Drogodependencias, dependiente de la Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social, le corresponden, entre otras, las funciones de elaborar y proponer criterios de orientación sobre política de investigación, estudio y documentación en materia de drogodependencias así como informar con

Idazkaritzak droga-menpekotasunari eta, bereziki, arlo horretan egiten diren jardueri buruzko informazioa eskatuko die Jaurlaritzako sailei eta bestelako erakunde publikoei, eta egoki ikusten dituen komunikazio-bideak sortuko ditu.

Horretaz guztiaz gain, 1995eko abenduaren 19an hartutako Akordioaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak garrantzizko egitasmo, programa eta jardueren egutegia onartu zuen. Egutegi horren barruan sartzen da «Droga-menpekotasunen Hiru urteko III. Egitasmoa 1996-1998» deritzona, 15/1988 Legearen 32. atalean aipatua, non aldi horretan administrazio publiko desberdinek gauzatu behar dituzten prebentzio- eta laguntza-jarduerak era global eta koordinatu batean jasotzen diren.

Eusko Jaurlaritzak 1996ko martxoaren 26an hartutako Akordioaren bitartez onartu zen, beraz, «Droga-menpekotasunen Hiru urteko III. Egitasmoa 1996-1998» deritzona eta egitasmo horretan Droga Gaietarako Idazkaritzak sustatutako egitasmo bat aurreikusten da, Droga-menpekotasunen Euskal Behatokia, alegia, zein Jaurlaritzaren Programan jasotako konpromisoetako bat ere baden.

Jarduketa-programa horretan adierazten denez, Droga Gaietako Idazkaritzaren menpe dagoen egitasmo horrek ikerketa, informazio eta dokumentazioaren alorrak hartuko ditu. Helburuei dagokienez, droga-menpekotasunen ikuspegi orokor bat ematea izango du xede eta horretarako Behatokian sortutako edo tratatutako informazioa erabiliko du. Destinariak, berriz, droga-menpekotasunaren inguruan borondatez edo profesional gisa diharduten pertsona edo erakunde guztiak izango dira. Hauek dira helburu espezifikoak: datuak biltzea eta aztertzea, informazioa eratzeko metodoa hobetzea, informazioa zabaltzea eta estatuko eta nazioarteko erakunde eta organizazioekin batera lan egitea (Espainiako Behatokia, Europako Behatokia, etab.).

Behatoki honen zeregina, hortaz, iturri desberdinetatik datorren informazio sakabanatua osatzea eta arlo horretan diharduten profesionalen eskaintza izango da. Horretaz gain, tresna baliagarria izango da droga-menpekotasunen fenomenoaren egoera eta bilakaera ezagutzeko eta, ondorioz, administrazio publikoek burututako jardueren inpaktua eta eragina ebaluatzeko.

Egitasmoaren zereginak –ikerketa, informazioa eta dokumentazioa– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzeko otsailaren 7an emandako 141/1995 Dekretuaren 22. atalaren lehenengo letroraldian (d eta e idazkiak) eta bigarrenean daude zehaztuta eta horiek gauzatzeko Droga Gaietarako Idazkaritzari dagokio. Beraz, hori horrela den bitartean, zeregin horiek betetzeko eta

carácter preceptivo todo tipo de proyectos o anteproyectos de normas que se dicten en esta materia. Para el adecuado ejercicio de sus funciones la Secretaría de Drogodependencias recabará de los Departamentos del Gobierno y de los demás poderes públicos cuanta información considere necesaria sobre drogodependencias y, especialmente, de las actuaciones que aquellos realicen en ese campo, y establecerá los mecanismos de comunicación que estime oportunos.

Por otro lado, el Gobierno Vasco, mediante Acuerdo adoptado el 19 de diciembre de 1995, aprobó el calendario de planes, programas y actuaciones significativas del Gobierno, incluyendo en el mismo el III Plan Trienal de Drogodependencias 1996-1998, al que la Ley 15/1988 se refiere en su artículo 32, que recoge de forma coordinada y global las acciones de prevención y asistencia que hayan de realizarse por las distintas Administraciones Públicas en ese periodo.

Pues bien, debemos reseñar que en el III Plan Trienal de Drogodependencias 1996-1998, aprobado mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno de 26 de marzo de 1996, se contempla un programa promovido por la Secretaría de Drogodependencias, el denominado Observatorio Vasco de Drogodependencias, que así mismo constituye uno de los compromisos recogidos en el Programa de Gobierno.

Tal y como se especifica en el programa de actuación referenciado, se trata de un programa de investigación, información y documentación que, bajo la dependencia de la Secretaría de Drogodependencias, tiene como objetivo general el proporcionar a la comunidad una visión de conjunto del fenómeno de las drogodependencias a través de la información tratada o producida en el Observatorio, siendo sus destinatarios todas aquellas personas y entidades que profesional o voluntariamente intervienen en drogodependencias. Los objetivos específicos consisten en la recogida y análisis de datos, la mejora del método de comparación de la información, la difusión de la información y la cooperación con los organismos y organizaciones de ámbito estatal e internacional (observatorio español, observatorio europeo, etc.).

Por lo tanto este Observatorio nace con la misión de integrar la información, parcialmente dispersa, procedente de las diversas fuentes y de ponerla a disposición de los profesionales que trabajan en este campo. Además, constituirá un instrumento importante para conocer la evolución y situación del fenómeno de las drogodependencias y, por consiguiente, para evaluar el impacto y efecto de las actuaciones llevadas a cabo desde las Administraciones Públicas en general.

A este respecto es preciso recordar que en tanto en cuanto esas funciones de investigación, información y documentación objeto del programa no son otras que a las que se refieren los párrafos primero (apartados d y e) y segundo del artículo 22 del Decreto 141/1995, de 7 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, y cuyo ejercicio le corresponde a la Secreta-

Droga-menpekotasunen Hiru urteko III. Egitasmoan zehazten diren eginkizunak gauzatzeko, Droga-menpekotasunen Euskal Behatokia sortuko da.

Bestalde, komenigarria da zehaztea Droga-menpekotasunen Euskal Behatokiaren zereginak Droga Gaietarako Idazkaritzari atxikitako langileek –teknikariak eskuarki– burutuko dituztela. Horretarako, tresna lagungarri gisa, 15/1988 Legearen 40.2 atalean aipatzen diren lankidetzak hitzarmenak erabili ahal izango dituzte. Antolaketa-sistema hau jasota zegoen, jadanik, otsailaren 11ko 35/1986 Dekretuan; izan ere, bertan Ikerketa, Azterketa eta Dokumentazio Zerbitzu bat aurreikusten zen, Lehendakariaren Bulegoari atxikia, eta horren zereginak –funtsean Droga-menpekotasunen Euskal Behatokiaren berberak– hauek ziren: drogen aurkako borrokaren inguruko ikerketa eta azterketak koordinatzea, agiriak eta txostenak biltzea eta artxibatzea eta ente publiko zein pribatu guztiek erabili ahal izateko neurriak hartzea.

Beraz, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzeko otsailaren 7an emandako 141/1995 Dekretuaren azken xedapenetatik lehenengoa kontutan hartuta, hauxe

#### XEDATU DUT:

##### 1. atala. – Xedea.

Agindu honen bitartez, Droga-menpekotasunen Euskal Behatokia sortzen da, Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietarako Idazkaritzaren ikerketa, informazio eta dokumentazio zerbitzu gisa. Behatokiaren helburua fenomenoaren ikuspegi global eta iraunkor bat lortzea da, droga-menpekotasunak Euskal Autonomi Elkartearen izan ditzakeen joerak aurreikusteko eta estatuko eta Europako azterketetan integartzeko.

##### 2. atala. – Zereginak.

1.– Droga-menpekotasunen Euskal Behatokiari dagokio:

a) Euskal Autonomi Elkartearen eskaintzen eta kontsumitzen diren drogei buruz modu zuzenean edo zeharka iristen den informazioa eta fenomeno bi horiei lotutako faktoreei buruzkoa jasotzea; beti ere, Datu Pertsonalen Tratatua Informatizatua arautzeko urriaren 29an emandako 5/1992 Lege Organikoan isilpekotasuna babesteko ezarritako xedapenak errespetatuz.

b) Jasotako informazioa aztertzea, joera berriak antzematea eta drogen kontsumoan eta horri lotutako faktoreetan gertatzen diren aldaketak analizatzea.

c) Prestatze eta bideragarritasun azterketak eta ikerketak egitea; adituen bilerak antolatzea eta, beharrezko ikusiz gero, lan-taldeak sortzea.

ría de Drogodependencias, procede por un lado desarrollar tales funciones a través de la creación del Observatorio Vasco de Drogodependencias para coadyuvar, de otro, a la ejecución del conjunto de actuaciones definidas en el programa reseñado que se recoge en el III Plan Trienal de Drogodependencias.

Así mismo conviene matizar que el conjunto de actuaciones a desarrollar por el Observatorio Vasco de Drogodependencias serán realizadas por el personal, fundamentalmente técnico, adscrito a la Secretaría de Drogodependencias, que podrá utilizar como instrumentos auxiliares en el ejercicio de dichas funciones los Convenios de colaboración a que hace referencia el artículo 40.2 de la Ley 15/1988. Este sistema de organización aparecía ya recogido en el citado Decreto 35/1986, de 11 de febrero, en el que constaba un Servicio de Investigación, Estudios y Documentación adscrito a la Oficina del Lehendakari y cuyas funciones, básicamente coincidentes con las del Observatorio Vasco de Drogodependencias, consistían en coordinar las investigaciones y estudios en todo lo relativo a la lucha contra la droga y la recopilación y archivo de documentación e informes así como velar para que los mismos pudieran ser utilizados tanto por los entes públicos como privados.

Por todo ello, y en virtud de la Disposición Final Primera del Decreto 141/1995, de 7 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social,

#### DISPONGO:

##### Artículo 1. – Objeto y finalidad.

Por la presente Orden se crea el Observatorio Vasco de Drogodependencias como un servicio de investigación, información y documentación de la Secretaría de Drogodependencias del Gobierno Vasco, con la finalidad de tener una visión global y permanente del fenómeno que permita predecir las posibles tendencias de las drogodependencias en la Comunidad Autónoma del País Vasco, e integrarlas en los análisis estatal y europeo.

##### Artículo 2. – Funciones.

1.– Corresponde al Observatorio Vasco de Drogodependencias:

a) Recoger, respetando las disposiciones relativas a la protección de la confidencialidad establecidas por la Ley Orgánica 5/1992, de 29 de octubre, de regulación del tratamiento informatizado de los datos de carácter personal, la información que, de forma directa o indirecta, pueda dar cuenta de la oferta y del consumo de drogas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como de los factores asociados a ambos fenómenos.

b) Analizar la información obtenida, estudiando las nuevas tendencias, así como los cambios que se vayan produciendo tanto en el consumo de drogas como en los factores asociados al mismo.

c) Realizar investigaciones y estudios preparatorios y de viabilidad; organizar reuniones de expertos y crear, si fuere necesario, grupos de trabajo.

d) Agiri-fondo zientifiko bat sortzea eta informazio-jarduerak bultzatzea.

e) Datuen bilketarako irizpideak bateratzen saiatzea. Horretarako, Drogen eta droga-menpekotasunen Europako Behatokiak eta antzerako izaera eta zereginak dituzten gainontzeko erakundeek erabiltzen dituztene-kin harmoniza daitezkeen adierazleak definituko dira.

f) Droga-menpekotasunen Euskal Behatokiarekin batera lan egiten duten edo egin dezaketen zentro informazio-emaile desberdinei, instituzioei, sailei eta erakundeei aholkuak ematea.

g) Erabakiak hartzeko ardura duten agintari-ek, ikertzaileek, profesionalak eta Euskal Autonomi Elkar-tean drogen aurkako borrokan parte hartzen duten pertsona zein entitate garrantzitsuenek elkarri informa-zioa eman diezaioten erraztasunak ematea.

h) Sekretupekoak ez diren informazioak ahalik eta gehien zabalduko direla bermatzea. Horretarako, dro-gen kontsumoaren eta horri lotutako faktoreen alorrean «arazoa zertan den» jakinarazteko aldizkari bat egingo da.

i) Arauz ezartzen den beste edozein funtzio.

2.- Aurreko lerroaldeko a), b) eta e) idaztietan aipatutako zereginak Sailaren estatistika-organoari esleitutakoen kalterik gabe beteko dira (organo hori otsailaren 13ko 32/1996 Dekretuaren bitartez sortu zen).

f) eta g) idaztietan aipatutako zereginak Droga-menpekotasunen Aholkularitza Batzordeari esleituta-koen kalterik gabe beteko dira.

3. atala. - Zereginak betetzea.

Aurreko atalean zehaztutako zereginak Droga Gaie-tarako Idazkaritzari atxikitako langileek burutuko dituzte. Horretarako, tresna lagungarri gisa, Droga-menpekoen alorreko Aurre-Hartze, Laguntza eta Birgi-zarteratzeari buruz azaroaren 11n emandako 15/1988 Legearen 40.2 atalean aipatzen diren lankidetzak-hitzar-menak erabili ahal izango dituzte.

#### AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argita-ratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1997ko otsailaren 4a.

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte  
Segurantzza sailburua,  
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

d) Constituir un fondo documental científico e impulsar las actividades de información.

e) Facilitar la unificación de criterios en la recogida de datos, mediante la definición de indicadores susceptibles de armonizarse con los utilizados por el Observatorio Europeo de las Drogas y las Drogodependencias y por otros organismos de naturaleza y funciones similares.

f) Asesorar a los diferentes centros emisores de información, Instituciones, Departamentos y Organismos, que colaboren o puedan colaborar en el Observatorio Vasco de Drogodependencias.

g) Facilitar el intercambio de información entre las diferentes autoridades encargadas de la toma de decisiones, los investigadores, los profesionales y los principales intervinientes en la lucha contra las drogas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

h) Garantizar una amplia difusión de informaciones no confidenciales, elaborando una publicación de carácter periódico sobre el «estado de la cuestión» en materia de consumo de drogas y factores asociados.

i) Cualquier otra función que se determine reglamentariamente.

2.- Las funciones señaladas en los apartados a), b) y e) del párrafo anterior se ejercitarán sin perjuicio de las atribuidas al órgano estadístico específico de este Departamento, creado por Decreto 32/1996, de 13 de febrero.

Las funciones señaladas en los apartados f) y g) se ejercitarán sin perjuicio de las atribuidas al Consejo Asesor de Drogodependencias.

Artículo 3.- Ejercicio de las funciones.

Las funciones a que hace referencia el artículo anterior de esta Orden serán realizadas por el personal adscrito a la Secretaría de Drogodependencias, que podrá utilizar como instrumentos auxiliares en el ejercicio de dichas funciones los Convenios de colaboración a que hace referencia el artículo 40.2 de la Ley 15/1988, de 11 de noviembre, sobre Prevención, Asistencia y Reinserción en materia de Drogodependencias.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de febrero de 1997.

El Consejero de Justicia, Economía,  
Trabajo y Seguridad Social,  
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.